

**2017-2021
GIZARTERATZEKO IV.
EUSKAL PLANA**

2020 jarraipen-txostena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

AURKIBIDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA.....	3
1. TXOSTENAREN EGITURA ETA HELBURUAK.....	7
2. METODOLOGIA	8
3. GIZARTERATZEKO PLANAREN JARRAIPEN PROZESUA	10
4. PLANAREN BETEARAZPEN MAILA	11
4.1. 2020ko betearazpen orokorra	11
4.2. Enplegua.....	14
4.3. Diru-sarrereren Bermea.....	19
4.4. Gizarte Zerbitzuak	21
4.5. Osasuna	25
4.6. Etxebizitza.....	28
4.7. Hezkuntza.....	33
4.8. Artikulazioa eta koordinazioa	35
PLANAREN BALORAZIOA.....	43
1. GEHIGARRIA. BAREMOA: BALORAZIO IRIZPIDEAK	49
2. GEHIGARRIA. TESTUINGURU-ADIERAZLEEN BILAKAERA.....	50

LABURPEN EXEKUTIBOA

SARRERA




- 2018ko otsailean, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak Gizarteratzeko IV. Euskal Plana (2017-2021) onartu zuen. Dokumentu honek urteko jarraipen-txostenak egiteko konpromisoari erantzuten dio; 2020an egindako jardueren jarraipenari, zehazkiro.

METODOLOGIA

- Aurreko jarraipen-prozesuetan erabilitako metodologia berari jarraituz, informazio-mekanismo hauek aktibatu dira: Excel-eko ebaluazio-matrizea, 2020ko jarduerak jasotzeko egindakoa –COVID-19ren eraginari erantzuteko aktibatutakoak barne–, bazterketa-egoerei buruzko testuinguru-adierazleen multzoa eta lehendabiziko galdetegia; baita Planaren inguruan, erakundeen pertzepzioari buruzko balorazio-izaera nabarmentzen den galdetegia ere.
- 2020ko azaroaren 4an, planean erantzukizun zuzena duten 41 erakundeei informazio-eskaera egin zitzaion. Erantzun-tasa %70,7koa izan da.

2020ko BETETZE MAILA

- Gizarteratzeko Euskal Planaren egiturak 3 ardatz, 7 helburu estrategiko, 34 jomuga eta 148 jarduketa ditu. Planaren helburuen eta jomugen betearazpen-maila neurtzeko ondoko baremoan oinarri hartu da, erakundeek emandako informazioan oinarritzen dena:

	Exekuzio-maila	Irizpidea
	Ezarritakoa	jomuga/jarduketan %>=60 hasita; haietatik bat edo gehiago ezarrita
	Hasitakoa	jomuga/jarduketan %>=60 aktiboak, baina haietatik bat ere ez ezarrita helmugen/jarduketan hasitako %>= 60, haietatik bat edo gehiago ezarrita
	Hasi gabea	jomuga/jarduketan %<30 hasita; ez dago %>70 bitarteko buruzko informaziorik

- **Helburuen betearazpen-maila.** 2020an jakinarazitako jardueren arabera, helburu estrategikoetatik sei Ezarritzat jotzen dira –Gizarte-zerbitzuak, Osasuna, Etxebizitza, Hezkuntza eta Koordinazioa–, eta helburu bakarra –Diru-sarreraren bermea–, berriz, hasitzat jotzen da. Helburu estrategiko bat bera ere ez da jotzen hasi gabetzat.
- **Jomugen araberako betearazpen-maila.** 2020an, Planeko helburuen artean %82,4 ezarri direla edo ezartzeko bidean daudela egiaztatu da, eta horietako %17,6 ez direla hasi edo ez dela jaso horiek gauzatzeari buruzko informazio nahikorik.

	Hasi gabeak/ Informaziorik gabe	Hasitakoak	Ezarritakoak	Guztira
Enplegua	1	3	2	6
Diru-sarreraren bermea	2	1	1	4
Gizarte-zerbitzuak	0	1	1	2
Osasuna	2	2	2	6
Etxebizitza	0	0	3	3
Hezkuntza	1	1	2	4
Artikulazioa eta koordinazioa	0	8	1	9
Guztizkoa	6	16	12	34
	%17,6	%47,1	%35,3	%100

- Gizarte Zerbitzuen, Etxebizitzaren eta Artikulazio eta Koordinazioaren helburuek aktibazio-portzentaje altuagoa dute; haien helburu guztiak hasita edo ezarrita daudelako. Aitzitik, Diru-sarrerak Bermatzeko helburuak hasi gabeko jomugen ehuneko handiagoa du.
- Plana 2020an nola gauzatu den aztertzerakoan, COVID-19 pandemiaren eragina kontuan hartu behar da. Pandemiak gizarteratze-arloan inplikaturako erakundeen lan-gainkarga eragin baitu; baita aurreikusitako jarduera-lehentasanak iraultzea ere, krisiak sortutako larrialdi-egoerei erantzutearen mende egon baitira.
- **Enpleguaren 1. Helburua** aktibatutako –hasitako edo ezarritako– jarduketan ehuneko handiena duen helburuetako bat da. 2020an, ondoko hauek nabarmen daitezke: enplegarritasunaren hobetze-programak, kontratazio-rako laguntza-deialdiak, enplegu-zentro bereziei eta laneratze-enpresei emandako laguntza, kontratazio-prozesuetan klausula sozialak sartzea, eta desgaitasuna duten pertsonak baldintza berberetan sartu ahal izateko enplegu-prozesuen egokitzea. Aitzitik, garapen txikiak izan duten –edo informazio-rik jaso ez duten– jarduketan artean, hauek nabarmentzen dira: DSBE erabiltzeko egungo pizgarrien sistema sendotzea, laneratze-laguntza osagarriak ematera bideratutako proiektu pilotuak, DSBE jasotzen dutenentzako eta/edo iraupen luzeko langabeentzako txanda-kontraturako hobariak handitzea, DSBE jasotzen dutenentzako lanbide- edo lan-alternatibak, edo diskriminazio-irizpide positiboak lan-merkatuan ezartzea.
- **Diru-sarrerak Bermatzeko 2. Helburua** 2020an hasi –eta ezarri gabe– jarraitzen duen helburu bakarra da; logikoa da, kontuan hartuta haren jarduerak estu-estu lotuta daudela Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legearen erreformarekin, oraindik egin gabe dagoena. 2020an egindako jarduera nagusien artean, eta COVID-19 pandemiaren markoan, GLLen eskariari erantzuteko aurrekontu-partidak handitzea nabarmentzekoa da; kalteberatasun sozialeko egoerentzako ezohiko laguntza ekonomikoak aktibatzea eta elikagai-programak sendotzea. Bultzada handiena behar duten jardueren artean DSBE sistema birmoldatzea, EAE osoan diru-sarrerak bermatzeko politika integral bakarra diseinatzea eta seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomikoen sistema hobetzea aipatzekoak dira.
- **Gizarte Zerbitzuen 3. Helburua** aipatzekoak dira EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa, II. Plana eta Mapa egiteko lanen hasiera, bigarren-mailako gizarteratzerako zentro eta zerbitzuen berrantolaketa, eta foru-aldundiek eta udalek eguneko arretarako, ostaturako eta laguntzarako zerbitzuak sortzea. Pandemiaren testuinguruan, nabarmentzekoak dira Inor Atzean Utzi Gabe Funtsa sortu izana, COVID-19k larritutako bazterketa-egoerei erantzuteko programetarako –zehazkiro, premia larriko produktuak banatzeko Guztion Artean programa eta GLLetara jo ezin duten pertsonentzako oinarriko beharrak estaltzeko Azken Sarea Indartzen programa–, eskariaren gorakadari erantzunez bazterkeriari arreta emateko zerbitzuak zabaltzea, etxegabeko pertsonen zenbaketa konfinamendu-aldian, alarma-egoeran bazterkeriari arreta emateko zerbitzuen egokitzapena, edo COVIDaren ondorioengatik bultzatutako laguntza emozionaleko programa. Aitzitik, informazio gutxieneko jarduketan artean, hauek nabarmentzen dira: zorroari buruzko Dekretua eguneratzeko erakunde arteko lantaldea sortzea, ingurune inklusiboak sortzeko ekimen esperimentalak garatzea, kulturaren eta kirolaren bitartez gizarteratze-programa pilotuak egitea, edo gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen funtzionamendua arautzea.
- **Osasunaren 4. Helburua** 2020an gauzatutako jarduera nagusien artean, ondokoak nabarmentzen dira: Osasun mentaleko sareen plan estrategikoa, tratamendu medikoak atxikitzeko laguntzak, suizidioa prebenitzeko estrategian egindako aurrerapenak, Inor Atzean Utzi Gabe Funts esparruan aktibatutako arreta psikologikoko programak, arrisku-kolektiboetan mendekotasunak prebenitzeko laguntzak, eta kalteak murrizteko baliabideak kudeatzen dituzten elkarteekin hitzarmenak (Bilboko Elizbarrutiko Caritas, Gizakia eta Hiesaren aurkako Herritarren Batzordea). Bultzada handiena behar duten jardueren artean aipatzekoak dira osasuneko gizarte- eta genero-desberdintasunak murriztea, baita osasun-desberdintasunei buruzko monitorizazioa eta ikerketa sustatzea ere.

- **Etxebizitzaren 5. Helburuak** 2020an ezarritako jomugen ehunekorik handiena du, eta ondokoak nabarmentzekoak dira: 210/2019 Dekretua –babes-etxebizitzaren sistema hobetzen duena– alokairu sozialeko etxebizitzaren parkea handitzea, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden kolektiboetako etxebizitzak lagatzea, etxebizitza-gastuetarako udal-laguntzak; utzarazpen-arriskuari aurre egiteko udaletako zerbitzuak eta protokoloak, pobrezia energetikoari lotutako prestazioak, eta pobrezia energetikoaren eta esku-hartzearen aukeraren azterketa egitea.

COVID-19ren krisiaren eraginari erantzuteko, ondokoak aktibatu dira: parke publikoko alokairuaren ordainketatik salbuestea, bereziki kalteberak diren pertsonen berehalako bizileku-konponbidea emateko ezohiko laguntzak, alokairua ordaintzeko arazo iragankorrak dituzten ohiko etxebizitzaren errentarientzako laguntzak, eta Gaztelagun programaren onuradun diren eta egoera kalteberan dauden pertsonentzako laguntzak.

Aitzitik, garapen edo informazio gutxien duten jarduketan artean, administrazio autonomikoaren eta udalen artean hitzarmenak sinatzea bultzatzea nabarmentzekoa da, premian dauden gizarte-sektoreentzako zuzkidura-bizitokien udalaz gaindiko sarea eratzeko.
- **Hezkuntzako 6. Helburuan** azpimarratzekoak dira: Haurreskolen tarifak murriztea eta salbuestea diru-sarrerara gutxiko familientzat, ikastetxeetako giza baliabideak eta baliabide materialak ematea hezkuntza-laguntzaren berriazko premia duten ikasleei erantzuteko, absentismoa desagerrarazteko lurralde-programak sendotzea; eta hezkuntza sendotzeko programak. COVID-19 krisiaren testuinguruan, gizarte-desabantailan dauden adingabeei hezkuntza-laguntza emateko Aukerak Suspertzen programa aktibatu dela aipatu behar da, baita ikastetxeak itxeari aurre egiteko beste laguntza-neurri batzuk ere; hala nola, jantokiko bekei eustea.

Bultzada edo informazio gehien behar duten jardueren artean, hezkuntza-premiak dituzten ikasleek lanbide-heziketarekin eta enpleguaren mundura egindako trantsizio arrakastatsuekin lotutako prestakuntza-aukerak nabarmentzekoak dira, baita bizialdi osoko ikaskuntzarako sarbide unibertsala bermatzea ere.
- **Artikulazioaren eta koordinazioaren 7. Helburua**, Etxebizitza eta Gizarte Zerbitzuekin batera, 2020an aktibatutako helburuen ehuneko handiena duten hiru helburuetako bat da. Jarduera nagusien artean, "2017-2022 aldirako Euskadiko Lurraldeko Esku Hartze Plan Integratuaren" (PITI) eremu kalteberetan interbentzio integraleko esperientzia pilotuak abian jartzea, ZTBPren "hiri-habitata" proiektu berritzaileetarako laguntza-lerroa, hiri-berronertzeari buruzko dokumentua genero-ikuspegia aintzat hartuta egitea, gizarteratzeko eta laneratzeko lurralde-batzordeen funtzionamendua, balioespenerako, diagnostikorako eta fitxa sozialerako tresnak berrikusteko batzordeak, gizarte-zerbitzuen lehen- eta bigarren-mailako arretaren artean koordinazio-protokoloak ezartzea, gizarte-zerbitzuen esku-hartzearen esparruan eta hobekuntza-programen artean koordinazio-protokoloak ezartzea. Halaber, nabarmentzekoak dira: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, Hiriko Gizarte Kalteberatasunaren Inbentarioa proiektua, UPV/EHUk eta Deustuk gizarte-politiken eta gizarteratzearen esparruan egindako graduondoko azterlanak, edo indarkeria matxistaren arloan egindako ekintzak –jarduera-protokoloak–, etxebizitzaren esleipen zuzenak, Telefono Zerbitzu Espezializatua, Nahikari programa, Biktimen Tratamendurako Erakunde arteko Laguntza Mahaia edo Biktimen Laguntzarako Erakunde arteko Mahaia, prestazio ekonomikoak.

Aitzitik, garapen txikieneko edo informaziorik gabeko jarduketan artean, ondokoak nabarmentzen dira: langabezia-tasa handiko eremuetan enplegua sortzea, gizarte-zerbitzuetan parte hartzea sustatzea, desabantailan dauden hezkuntza-arloko adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, gizarteratzeko eragileak identifikatzea, enplegu-zerbitzuetan kasu-erreferente bat esleitzea, gizarteratze-politiken zilegitasun sozialaren aldeko diskurtsoak zabaltzea, gizarte-erakundeen erabaki-esparruetan emakumeak gehitzea, edo Hirugarren Sektorearekin lankidetzan erantzukizun publikoko zerbitzuak emateko eredu mistoa bultzatzea.

PLANAREN BALORAZIOA

- Lehendabiziko aldiz, Planari buruzko balorazio-izaera handiagoko informazioa eskatu zaie erakundeei. 2021ean, gai horiek aditu Panel zabalago bati helaraziko zaizkio, gauzatu nahi den planaren birbideratze-prozesuaren barruan dagoena.
- **Planaren balorazio orokorra 10etik 6,3koa da.** Indargune gisa aipatzen dira: gizarteratzeari modu integralean heltzea, sailen arteko, erakundeen arteko eta sistemen arteko lankidetzaren aldeko apustua, eta aldizkako jarraipen-sistema izatea. Hobetu daitezkeen alderdiei dagokionez, ondokoak aipatzen dira: sistemen arteko lan integratuaren zailtasunak eta administrazioen arteko koordinazioa, gizarte-zerbitzuen arloko arau-garapena, jarduketa eta adierazle jakin batzuen zehaztasun falta, zerbitzuen zentraltasuna eta ez pertsonena, eta planaren benetako eragina baloratzeko zailtasunak.
- **Plana lanketa-prozesuaren batez besteko balorazioa 10etik 6,7koa da.** Baikortzat nabarmendu dira: diagnostikoa egokia dela-eta hura egiteko osagai parte-hartzailea dela; aldiz, zalantzan jarri da planari buruzko ezjakintasuna, baita gizarteratzeari buruzko ekintzak bilduma-izaera hutsa izatea ere.
- **Planaren hiru urteetako koordinazio-, dinamizazio- eta jarraipen-prozesuari dagokionez, 5,8ko balorazioa eman da.** Indarguneen artean, urtero egiten diren jarraipen-prozesuen sistematizazioa nabarmentzen da. Aitzitik, plana sustatzeko dinamizazio eta koordinazio handiagoa eskatzen da, baita jarraipen-adierazleak hobeto definitzea ere.
- Planaren 7 helburu estrategikoen 2018., 2019. eta 2020. urteetako **garapen-maila** baloratzekoan, Diru-sarrerak Bermatzeko helburua da balorazio altuena lortzen duena $-5,8/10-$, eta, ondoren, Gizarte Zerbitzuak eta Hezkuntza, Osasuna eta Koordinazioa. Bestalde, Enplegua eta Etxebizitza ez dira iristen onarpen-mailara.
- **Planaren neurriek onuradunengan duten eragina 6,5ekin baloratu da.** Indargune gisa, ondokoak nabarmentzen dira: dirusarrera- eta etxebizitza-laguntzak, akonpainamendu soziolaboralerako jarduerak eta programa espezializatu jakin batzuetan egindako aurrerapenak. Aitzitik, hobetu beharreko alderdien artean aipatzen dira: neurrien benetako eragina baloratzeko zailtasunak, partekatutako arreta-eredurik ez izatea, sarearen atomizazioa eta arreta integratua emateko zailtasunak, ikuspegi asistentzialistegiak irautea edo baztertuta dauden pertsonentzako ostatu-baliabideetan gabeziak izatea.
Planak genero-berdintasunaren ikuspegitik izan duen eragina baloratzeko ere eskatu zitzaion, eta 10etik 6,1eko nota lortu. Alderdi positiboen artean aipatzen dira: enpleguaren kalitatea hobetzeko administrazio-koordinazioan egindako aurrerapenak, programetarako sarbidean izandako diskriminazio positiboa edo kontratazio-klausulak; aldiz, ez da garatu indarkeria matxistatik haratago baztertuta dagoen genero-ikuspegia txertatzea edo egoera bereziki ahulen balorazioa arautzea.
Azkenik, haur-pobrezia murrizteari dagokionez, balorazioa 5,6koa da. Hobekuntza sozioekonomikoa eta enpleguaren sorrera $-COVID-19$ krisiaren aurrekoa dena- eta diru-sarreraren prestazioak eskuratzeko erraztasuna $-DSBE, GLL$ eta udal-laguntzak- nabarmentzekoak dira. Aitzitik, kalteberatasun-egoeran dauden adingabeak dituzten etxebizitza-unitateentzako prestazio ekonomikoen eredia zabaltzea eskatzen da, baita zerga-pizgarri gisa familiari laguntzeko beste neurri batzuk garatzea ere.

2018ko otsailaren 26an, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak Gizarteratzeko IV. Euskal Plana (2017-2021) onartu zuen. Plan hori Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak sustatu zuen, eta Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak egin. Batzorde horretako kide dira, sail horretaz gain, hiru foru-aldundiak eta EUDEL.

Dokumentu honek 2020ko ekitaldian garatutako jardueren jarraipen-txostena egiteko konpromisoari erantzuten dio.

1. TXOSTENAREN EGITURA ETA HELBURUAK

Txosten honen xedea, beraz, 2020an Planean sartutako jomugek elementu esanguratsuenak nabarmentzeko izan duten garapen-mailari buruzko informazio guztia laburbiltzea da, bai aurreratuagotzat jo daitezkeen jardueri dagokienean, bai behar bezala garatu gabe daudenei dagokienean.

Txostenaren egitura ondokoa da:

- Lehenik eta behin, txostenaren ondorio nagusiak laburbiltzen dituen laburpen exekutibo bat eskaintzen da.
- Sarrerako zatiak, ondoren, jarraipen-prozesuaren helburuak eta metodologia aurkezten ditu.
- Txostenaren zatirik handiena 2020an Planak izan duen betearazpen-mailaren analisiak osatzen du. Azterketa horretan, ikuspegi orokor baten ondoren, zehatz-mehatz Planaren helburu estrategiko bakoitzean egin diren jarduerak aztertzen dira.
- Azken zatian, Planaren hiru urteko indarraldiko (2018-2020) garapenari eta eraginari buruzko ebaluazio-izaera handiagoko alderdiak aztertzen dira.
- Eranskin banatan, Planaren jarduera, jomuga eta helburu estrategikoen betearazpen-maila baloratzeko baremoa jasotzeaz gain, bazterketa-egoeren ikuspegi bat osatzen duten testuinguru-adierazle nagusien bilduma ere jasotzen da, eboluzioaren ikuspegia aintzat hartzen duena.

2. METODOLOGIA

Aurreko urteetako esperientziak informazioaren sistematizaziorik erakusten du bilketan eta tratamenduan, eta, beraz, Planaren hedapenean inplikaturako erakunde gehienentzat gauzatutako jardueren berri ematea arazotsua dela. Erakundeek informazioa aurkitzeko zailtasunak dituztela jakinarazi dutenez, ez dute aurreko urteetako datuen berri, emaitzen adierazleak eskasia egiaztatu da, eta bidalitako informazio-maila oso desberdin bat.

Azken batean, ez dago informazioa biltzeko prozedurarik inplikaturako erakunde guztientzat, eta, beraz, Planaren esparruan gauzatutako jardueren jarraipen sistematikoa irizpide homogeneoen gainean egingo dela bermatzea zaila gertatzen da.

Egiaztapen horretatik abiatuta, orokorrean, nolabaiteko jarraitutasuna bermatzeko 2018ko eta 2019ko jarraipen-prozesuetako metodologia bera erabiltzen saiatu gara, baina funtsezko bi aldaketa eginda:

- Excel-eko ebaluazio-matrizea arintzea, helburuen –ez jarduketek– mailan, soilik informazioa eskatu eta egikaritze-adierazleak jasotzea saihestuta.
- Galdetegi bat gehitzea COVID-19ren krisiaren eraginari eta Planari berari buruzko alderdi kualitatiboak jasotzeko.

2.1. Excel-eko ebaluazio-matrizea

Egindako jarduketek gauzatze-bilketa mantendu da, Excel-eko matrize baten bitartez, baina eskatutako informazioa arinago batekin eta ondokoetara mugatuta:

- Jomugen betearazpen-maila (34); hala nahi duten erakundeek jarduketa-mailan (148) zehaztu ahal izateko, aurreko ekitaldietan egin den bezala.
- Jomuga –edo jarduketa– bakoitzean garatutako jardueren deskribapen zehatza.
- Planean aurreikusi gabeko eta/edo COVID-19 krisiaren ondorioz aktibatutako jarduera berriak sartzea.

Illo horretan, gogorarazi behar da fase honetan ez dela Planaren eragina ebaluatu nahi, baizik eta 2020an izango duen garapen-maila baloratzeko eta neurri txikiagoan artatzen ari diren eremuak detektatzeko behar den informazioa bildu nahi dela.

Erakundeek errazago bete dezaten, 2019an emandako informazioaren kopia bat helarazi zaie erakundeei.

2.2. Plana baloratzeko galdetegia

Lehen aldiz, Planaren hedapenean zuzenean inplikaturak dauden erakundeei eskatu zaie ebaluazio-izaerako informazioa igortzea, galdetegi bat bitarteko. Galdetegi horretan Planaren eta COVID-19ren krisiaren eraginaren inguruan dituzten pertzepzioen berri eman dute. Galdetegia, bigarren-fase batean, adituen Panel zabalago batera bidaliko da, 2021. urtean garatuko den planaren birbideratze-prozesuaren baitan. Planaren hedapenean esleitutako erantzukizunak dituzten 27 erakundeek (Eusko Jaurlaritzako sailak, foru-aldundiak eta 20.000 biztanletik gorako udalak) eta Planean erantzukizun

zuzenik esleituta ez duten baina informazio interesgarria eman dezaketela uste den erakunde eta profesional multzo zabal batek (administrazio publikoko profesionalak, gizarte-erakundeetako ordezkariak, unibertsitateko irakasleak eta ikertzaileak, etab.) osatuko dute Panela.

Bi tresna horien bitartez –matrizea eta galdera sorta–, bildutako informazio guztia aztertu eta Excel-eko dokumentu banatan irauli da. Dokumentu horiek Lan eta Enplegu Saileko Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak eskura ditu.

2.3. Testuinguru-adierazleen bilduma

Hirugarrenik, kanpoko iturrietatik lortutako adierazle estatistikoak bildu eta aztertu dira, euskal biztanleriaren egoerari buruzko irudi zehatza ezartzeko aukera ematen dutenak, Planak hartzen dituen esparruei dagokionez (enplegua, diru-sarrerak, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, etab.), gizarteratze- eta bazterkeria-egoeretan eragiten dutena .

Generoaren arabera bereizita saiatu gara informazioa ematen, ahal izan den guztietan eta 2020ko abendura arte eguneratuta. Nolanahi ere, erabilitako estatistikek planteatzen dituzten datuen eskuragarritasunaren arabera, datuen erreferentzia-aldia aldatzen da. Adierazleak irizpide hauen arabera hautatu dira:

- Eskuragarritasuna: batez ere, estatistika-iturrietako edo erakundeen memoriako datu publikoak erabili dira, informazio hori haien web orrietan herritar guztien eskura jartzen dena.
- Aldizkakotasuna: Maiztasun jakin batekin eguneratzen diren iturriak adierazle horien jarraipen erregularra egin ahal izateko aukeratu dira, azterlan puntualak baztertuta.
- Egokitasuna: Euskal biztanleriaren egoera orokorra islatzen duten adierazleak zehaztu ditu, Gizarteratze Aktiboko IV. Euskal Planaren eragina zuzenean edo zeharka neurtzen duten alderdiak kontuan hartuta. Era berean, gizarte-bazterketako egoeren prebentzioarekin zerikusia duten hainbat zerbitzu eta prestazio ekonomikoren erabilerari buruzko datuekin osatu da informazio hori.
- Indarraldia: datuak 2020ko abendurako eguneratuta dituzten iturriak erabili dira. Bilakaerari buruzko datuari dagokionez, eskuragarri dagoen azken datuak abiapuntuko datuarekin alderatuta duen aldea erakusten da, kontuan hartuta erreferentziako lehen urtea, eta kasu gehienetan, 2016. urtea da.

Txostenaren irakurketa arintze aldera, testuinguru-adierazleen taula osoa eranskin gisa gehitu da.

3. GIZARATERATZEKO PLANAREN JARRAIPIEN PROZESUA 2020 URTEAN

2020ko azaroaren 4an, Gizarteratzeko Euskal Planaren jarraipena egiteko informazio-eskaera egin zitzaizen Planean erantzukizun zuzena esleituta duten 41 erakunderi. Abenduaren 14an, mezu oroigarri bat bidali zitzaizen erantzun ez zuten erakundeei, esanez informazioa abenduaren 31 baino lehen bidaliz gero 2020ko jarraipen-txostenaren behin betiko bertsioan sartuko zela.

2021eko urtarrilaren 18an informazioa biltzeko epea behin betiko itxiztat jo zen. Bukaerako erantzun-tasa %70,7koa izan da.

1. taula. Erantzun-tasa.

ERAKUNDEAK	Eskakizunak	Erantzunak 21/01/18	Erantzun-tasa %
Eusko Jaurjaritza	17	12	70,6
Foru Aldundiak	3	3	100
Udaletxeak eta EUDEL ¹	21	14	66,7
GUZTIZKOA	41	29	70,7

Praktikan, jardueren jarraipen-prozesuan, erantzun-indizea aurreko urtekoen tankerakoa izan arren, jasotako informazioaren zehaztasun- eta hedapen-maila apalagoa egiaztatu da. Ildo horretatik, COVID-19 pandemiaren ondoriozko krisiaren eragina berriz ere aipatzea ezinbestekoa gertatzen da: erakunde ia guztiek lan-gainkargaren ondorioz, konplikazioak izan direla jakinarazi dute: isolamendu-aldiei lotutako langileen absentiengatik, pertsona jakin batzuek iristeko telelanarekin edo informazioarekin lotutako zailtasunengatik, etab.

Azkenik, jarraipen-txostenean erakundeek informazio-jarduerak baino ez direla aipatzen gogorarazi behar da eta, beraz, 2020an egin arren, kanpo gera daitezkeela inolako informaziorik jaso gabeko jarduerak.

¹ Hauek dira erantzun igorritako udalak: Barakaldo, Basauri, Donostia, Eibar, Erandio, Getxo, Irun, Leioa, Laudio, Portugalete, Sestao, Gasteiz eta Zarautz; eta EUDEL.

4. PLANAREN BETEARAZPEN MAILA




4.1. 2020ko betearazpen orokorra

Gizarteratzeko Euskal Plana 3 ardatzen, 7 helburu estrategikoren, 34 jomugen eta 148 jarduketa ingururen inguruan egituratzen da.

Atal honek Planaren exekuzioaren balorazio kuantitatiboa eskaintzen du. Ikuspegi hori orokorragoa da eta hurrengo epigrafeetan ikuspegi kualitatiboago batekin osatzen da. Bertan, 2020. urtean helburu estrategiko bakoitzean gauzatu diren ekintza zehatzen deskribapen xehatua eskaintzen da.

Planaren helburuak eta jomugak zenbateraino bete diren erakunde emaileek emandako informazioaren arabera baloratu da, eta aurreko jarraipen-prozesuetako baremo bera aplikatu². Baremo horrek balorazio-irizpide hauen arabera sailkatzen ditu helburuak:

2. taula. Betearazpen-mailaren balorazio-baremoa

Betearazpen-maila	Irizpidea
 Ezarritakoa	jomuga/jarduketaren %>=60 hasita, eta haietatik bat edo gehiago ezarrita
 Hasitakoa	jomuga/jarduketaren %>=60 aktiboak, baina haietatik bat ere ez ezarrita jomuga/jarduketaren %>=30 hasita, eta haietatik behintzat bat ezarrita
 Hasi gabea	jomuga/jarduketaren %<30 %>70 informazio-txostenik gabea

2020an egindako jardueren arabera, sei helbururen ezarpena –Gizarte-zerbitzuak, Osasuna, Etxebizitza, Hezkuntza eta Koordinazioa– egiaztatu da, eta helburu bakarra –Diru-sarreraren bermea– hasitzat jotzen dela.

Beraz, esan daiteke **Gizarteratzeko Euskal Planaren helburuen betearazpen-maila handia dela**: Planaren helburuen artean, %82,4 ezarri dira edo ezartzeko bidean daude, eta horietatik %17,6 ez dira hasi edo ez da jaso horiek gauzatzeari buruzko informazio nahikorik.

² 1. eranskinean, jarduerak, jomugak eta helburuak baloratzeko baremoa kontsulta daiteke.

3. taula. Planaren helburuen betearazpen-maila (2018, 2019 eta 2020).

Helburuak	Beteazpen-maila		
	2020	2019	2018
1. Enplegua	✓	✓	✓
2. Diru-sarreraren bermea	▶	▶	✓
3. Gizarte-zerbitzuak	✓	✓	▶
4. Osasuna	✓	✓	✓
5. Etxebizitza	✓	✓	✓
6. Hezkuntza	✓	✓	✓
7. Artikulazioa eta koordinazioa	✓	✓	✓

34 jomugen analisia aztertuz, Planaren helburuen %82,4 2020an ezarri edo ezartzeko bidean daudela egiaztatu da; kasuen 17,6an, berriz, ez da hasi edo ez da jaso gauzatzeari buruzko informazio nahikorik. Beraz, jomuga-mailan gauzatze-maila handia dela uste da.

Zehatzago azalduta, 12 jomuga ezarri izana baloratu da, 16 jomuga hasitzat jo dira, eta ez dira hasi 6 jomuga –edo ez da jaso informazio nahikorik–.

4. taula. Jomugen betearazpen-maila (2020)

	Ez-hasiak/ Informaziorik gabe	Hasitakoak	Ezarritakoak	Gutzikoa
Enplegua	1	3	2	6
Diru-sarreraren bermea	2	1	1	4
Gizarte-zerbitzuak	0	1	1	2
Osasuna	2	2	2	6
Etxebizitza	0	0	3	3
Hezkuntza	1	1	2	4
Artikulazioa eta koordinazioa	0	8	1	9
Gutzikoa	6	16	12	34
	%17,6	%47,1	%35,3	%100

Jomugen betearazpen-maila helburu bakoitzean aztertzean, 2020an igartzen da:

- Gizarte-zerbitzuen, Etxebizitzaren eta Artikulazio eta Koordinazioaren jomugak aktibatutako jomugen ehuneko handiena dute³, horiek guztiak 2020ko ekitaldian hasi edo ezarritzat jotzen baitira. Horren atzetik, Enpleguaren helburua agertzen da, %83,3ko betearazpen-maila duena.
- Diru-sarrerak Bermatzeko helburuak, aitzitik, hasitako edo ezarritako jomugen ehuneko txikiena du, hasi gabeko jomugen %50 baititu.
- Dagoeneko ezarrita dauden jomugen ehunekoa baloratzean, hau da, betearazpen-maila handiena dutenak ebaluatzean, Etxebizitzaren helburuak ehuneko handiena du, osatzen duten hiru jomugak horrela ebaluatu baitira. Ondoren, Gizarte Zerbitzuen eta Hezkuntzaren helburuak ageri dira, haietako bakoitzean %50 jomugak dagoeneko ezarrita daudenak.

5. taula. Planaren Jomugen betearazpen-maila (2019 eta 2020⁴).

	Ez-hasiak/ Informaziorik gabe		Hasitakoak		Ezarritakoak		Guztira
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	
Enplegua	0	1	3	3	3	2	6
Diru-sarreraren bermea	1	2	3	1	0	1	4
Gizarte-zerbitzuak	0	0	1	1	1	1	2
Osasuna	0	2	4	2	2	2	6
Etxebizitza	0	0	1	0	2	3	3
Hezkuntza	0	1	1	1	3	2	4
Artikulazioa eta koordinazioa	0	0	3	8	6	1	9
GUZTIZKOA	1	6	16	16	17	12	34
	%3	%17,6	%47	%47,1	%50	%35,3	%100

2020ko ekitaldiko jomugen betearazpen-maila 2019ko emaitzekin alderatzean, ondokoa ikus daiteke:

- Aktibatutako –hasitako edo ezarritako– jomugen ehunekoa 2019ko 97tik 2020ko 82,4ra apaldu da.
- Hasi gabekotzat –edo informaziorik gabekotzat– kalifikatutako jomugak hazi egin dira, eta bakarra (2019) izatetik sei (2020) izatera igaro dira.
- Ezarritako jomugen kopurua beheratu egin da: %50 (2019) izatetik %35,3 (2020) izatera.

³ Aktibatutzat joko dira bai ezarrita daudenak bai hasita daudenak, baremoaren arabera.

⁴ Jarraipen-prozesuan erabilitako exekuzioaren balorazio-baremoa 2019tik aurrera aldatu zen; horregatik, 2018ko emaitzekin alderaketa ez egitea erabaki da.

Nolanahi ere, 2020an Planaren jomugak nola gauzatu diren aztertzerakoan, eta, funtsean, aurreko urteetako gauzatze-mailarekin alderatzean, COVID-19ren krisiak urte honetan izandako eragin ukaezina kontuan hartu beharrekoa da, gutxienez bi alderditan eragiten baitu:

- Krisiaren ondoriozko premia sozioekonomikoei erantzuteko premia izan da erakundeak gizarteratzearen arloa gidatu duen ibilbide-orria, eta haien jarduerak ez dira Planari atxikita egon, ohiko ekitaldi batean gertatu bezala.
- Telelanari lotutako zailtasunek eta gizarte-larrialdiek eragindako zereginen gainkargak jasotako informazioaren kalitatea eta kantitatea aurreko urteetako mailan ez egotea.

4.2. Enplegua

Enpleguaren 1. Helburuaren arabera, 26 jarduera zehatz egingo dira, 6 jomugen inguruan. 2020an, jomuga horietako bi ezarrita daudela balioesten da, hiru hasita daudela; horietako batean, ordea, ez da informazio nahikorik jaso, eta hasi gabetzat jotzen da.

Hori dela-eta, Enpleguaren 1. Helburua, gauzatzeari dagokionez, ezarritzat baloratzen da. Gainera, helburu aktibatuen ehuneko handiena duen helburuetako bat da, %83,3 .

6. taula. Enpleguaren 1. Helburuaren jomugen betearazpen-maila (2020)

Jomugak	Betearazpen-maila
1. Enplegu-kalitatearen hobekuntza	Informaziorik gabe
2. Gazteen eta enplegarritasunari laguntzeko premia handienak dituzten pertsonen laneratzea bultzatzea	Ezarrita
3. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua eraberritzea eta modernizatzea	Hasitakoa
4. Gizarte-ekonomiaren, autoenpleguaren, mikroekintzailtzaren eta gizarte-ekintzailtzaren aldezte	Hasitakoa
5. Administrazio publikoan gizarte-erantzukizuna bultzatzea	Ezarrita
6. Emakumeen aktibazio- eta okupazio-tasa handitzea, kalitatezko enpleguetan partaidetzaren eskutik	Hasitakoa

2. jomuga. Gazteen eta enplegarritasunari laguntzeko premia handienak dituzten pertsonen laneratzeari bultzatzea

Behar diren lan-aktibazioko tresnak garatzea, enplegarritasunari laguntzeko premia handienak dituzten pertsonen enplegu iraunkorrak eta kalitatezkoak eskuratzeko aukerak eskaintzeko, bai enpresa arruntan, bai gizarte-ekonomiaren esparruan, haien gizarteratzea eta bizi-kalitatea hobetzeko.

2. jomugaren esparruan, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak jarduketak hauek egin ditu 2020an:

- Dirulaguntza izenduna Novia Salcedo Fundazioari, gazteen enplegarritasuna hobetzeko, erakunde akademikoen eta enpresen arteko lankidetzari balioa emanez, eraldaketa digitalean parte hartzen duten erakundeen mota berri batean, kultura zientifikoa, etikoa eta teknologikoa sustatzeko.
- BIME PRO proiekturako babesletza-kontratu txikia, gazteak sormen-industrien sektoreetan prestatzera eta laneratzera bideratua, musika-industrian arreta berezia jarriz.
- Arabako Ganberari Eskola Proiektua egiteko dirulaguntza izenduna, ikasleentzako –merkatu sartzeko diren gazteak, esperientzia izanda bide berriak urratzeko asmoa duten pertsonak, eta baztertzeko arriskuan dauden taldeak– gizarte-trebetasunak eta zeharkako gaitasunak eskaintzeko salmenta-sektorean haien lanbidea garatu eta sektoreko eskaerak betetzeko enplegu-poltsa batean sartzeko aukera izan dezaten.
- Gipuzkoako Foru Aldundiari "Enpresa Bidelagun" proiektua egiteko zuzeneko dirulaguntza. Proiektu horren xedea da enpresak, aberastasuna eta lanpostuak sortzen duten eragile ekonomiko gisa, inguruko langabeen eta, batez ere, egoera zaurgarrienean daudenen enplegarritasun-prozesuetan duten zereginari erantzutea. Enplegutik urrunen dauden pertsonen enplegarritasunean sentsibilizatutako enpresen sare bat sortzea da helburu nagusia da; enpresa-prospekzio proiektu baten bitartez.
- Dirulaguntza izenduna GIZATEA-Euskadiko Laneratzeko Enpresen Elkarteari laguntza-ibilbideak kudeatzeko prestakuntzarako tresnak eta espazioak: garatzera bideratutako jardueretarako, laneratzeko laguntzeko taldeak dinamizatuzko, gaitasunak ziurtatzeko buruzko proposamenak egiteko, eta gizarteratzeko enpresen lana gizarteari zabaltzeko; zailtasun bereziak dituzten kolektiboak gizarteratzeko eta laneratzeko tresna moduan.

Lanbideak, bere aldetik berri eman duenez, 2020an ondoko jarduerak garatu direla:

Lehen Aukera programaren jarraipena, toki-erakundeek gazteak kontratatzea, 30 urtetik gorako iraupen luzeko langabeak kontratatzea, enplegu-zentroei, enplegu-zentro berezietako laguntza-unitateei eta laneratzeko enpresei laguntzeko jarduerak, desgaitasuna duten pertsonak merkatu arruntan eta enplegu lagunduaren bitartez kontratatzeko pizgarriak, langabeei zuzendutako prestakuntza-deialdi arrunta eta laguntza-proiektu bereziak garatzea.

Azkenik, 2019an Lanbide eraberritzeko eta modernizatze jarduketetan izandako aurrerapenen berri eman izana gogorarazi behar da, eta ondokoak nabarmendu beharra: Lanbideren zerbitzu-zorroaren definizioa, esku-hartze espezializatuaren eredua eta "ereduzko" bulego-eredu berri baten diseinua, baita dimentsio fisikoa eta birtuala konbinatzen dituen arreta- eta bideratze-prozesu bat ere. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin lotutako programak eta zerbitzuak arautzen dituen 168/2019 Dekretua eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa onartu izana jakinarazi zen (2019ko azaroaren 28ko EHAA). Gipuzkoako Foru Aldundiak, bestalde, ondokoak nabarmentzen ditu: aktibazio, gizarteratze, laneratzeko eta enplegarritasuneko zerbitzuaren definizioa; enplegarritasun-estrategiaren berrikuspena Elkar Ekin Lanean 2020-2023 programaren esparruan; Lanbiderekin hitzarmena, eta 1,2 milioi euroko laguntza-lerro baten deialdia eta ebazpena.

Tokiko mailan (tokian-tokian), hiru udalek eman dute 2020an arlo horretan egindako jardueren berri. Eibarreko Udalak, Ekonomia eta Berrikuntza Sailaren bitartez, prestakuntza-jarduerak egiten ditu, bazterketa-arriskuan dauden pertsonen berriaz zuzendutakoak barne. Leioako Udalak, bestalde, lehen lan-esperientzia lortzeko egindako ahalegina nabarmendu du, baita iraupen luzeko langabetuei laneratzeko jarduerak edo 45 urtetik gorako langabeentzako, iraupen luzeko langabeentzako eta/edo baztertuta dauden langabeentzako kualifikazio- eta laneratzeko esperientzia pilotuak diseinatzea ere. Azkenik, Sestaoko Udalak berretsi egin ditu COVID-19ren krisiak Behargintzako Tokiko Enplegu eta Garapen Zentroan aurreikusitako jarduerak garatzeko eragindako zailtasunak; bestalde, handitu egin da enplegu-planak gauzatzeko aurrekontu-zuzkidura –nahiz eta ezin izan den dirulaguntza osoa gauzatu–, eta enplegu-planen kolektibo onuradunak handitzea aurreikusi da; azkenik, dirulaguntza bat eskatu da, lehen lan-orientaziorako 3R Proiektua, lehen fasean lan-orientazioa aintzat hartzen duena.

3. jomuga. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua eraberritzea eta modernizatzea

Euskal Enplegu Zerbitzuari tresna egokiak ematea, zerbitzu horiek kudeatzen dituzten erakundeekin lankidetzan, orientazio-, prestakuntza- eta laneratzeko-funtzioak sendotzeko, eta lehen tasuna ematea zailtasun handienak dituen kolektiboari enplegua bilatzen laguntzeari eta laneratzeko banakako ibilbideak diseinatzeari.

Gogoan izan behar da aurrerapausoak eman direla Lanbide eraberritu eta modernizatzerako bideratutako jarduketetan; hauek nabarmendu behar dira: Lanbideren zerbitzu-zorroaren definizioa, Lanbide hornitu duen pertsona guztientzako esku-hartze espezializatuaren eredu eta bulego-eredu "tipo" berri baten diseinua, arreta- eta deribazio-prozesu bat barne, dimentsio fisikoa eta birtuala konbinatuz.jomuga.

4. jomuga. Gizarte-ekonomia, autoenplegua eta mikroekintzailtza eta gizarte-ekintzailtza sustatzea

Gizarte-ekonomiaren eta autoenpleguaren esparruan laneratzeko aukera iraunkorrak sortzea, zailtasun handienak dituzten pertsonentzat epe luzera bideragarriak diren ekintzailtza-formulak sustatuz.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak hiru jarduerari-ildo nagusi garatu ditu 4. jomugaren esparruan:

- Galera-maila gero eta handiagoa duten sozietate anonimo edo mugatuaren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterlanak egiteko laguntzak, negozio-bolumenaren murrizketa, izakinen gehikuntza, gehiegizko ahalmena, autofinantzaketaren marjina gordinaren murrizketa, gero eta zorpetze handiagoa, finantza-gastuen gehikuntza, aktibo garbiaren ahultzea edo desagertzea.
- Langileek enpresaren jabetza belaunaldi erreleborik gabe eskuratzeko bideragarritasunari buruzko azterlan juridikoak eta ekonomiko-finantzarioak egiteko laguntzak –Elkar Lan eta ASLERako dirulaguntzak–.2020an, esleitutako 50.000 euroko aurrekontuaren 6.000 €gauzatu dira.
- Gizarte-ekonomiako enpresak eratzeko laguntzak, lehenik enpresa-jarduerari duten erakundeak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko kasuak barne. 2.400.000 euroko hasierako aurrekontuaren 2.809.081 € egikaritu dira, eta gizarte-ekonomiako 136 enpresa berriri dirulaguntzak eman zaizkie; horren arabera, 429 enplegu berri sortuko dira gizarte-ekonomian.

Foru Aldundien kasuan, Gipuzkoan, 2020an, eskualdeko gizarteratze-, laneratzeko-, prestakuntza- eta enplegu-sareak jarri ziren martxan eskualdeko garapen-agentziekin.

Udalerriei dagokienez, Leioako Udalak neurri txikiko ekimen ekintzaile berriak garatzen eta abian jartzen laguntzeko eta ekintzailatza sustatzeko jarduerak egin izana egiaztatu da, laneratzeko alternatiba gisara.

5. jomuga. Administrazio publikoan gizarte-erantzukizuna bultzatzea

Laneratzeko aukerak sortzea enplegarritasunari laguntzeko premia handienak dituzten pertsonentzat, bi bideren bitartez: kontratazio publiko jasangarri eta arduratsuan eta enplegu publikoaren bitartez oinarritutako politikak.

Kontratazio publikoko prozesuetan klausula sozialak txertatzeari dagokionez, hainbat jarduketa detektatu dira:

- Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak egiaztatu du 2019ko martxoan onartu zela emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunerako klausulak txertatzeari eta kontratazio publikoan soldata-arrakalaren aurkako neurriei buruzko Jarraibidea, eta, beraz, jarduera hori ezarritzat jotzen da.
- Foru-mailan, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak klausula sozial hauek sartzen ditu zerbitzuak kontratatzeko espediente guztietan, betearazteko baldintza berezi gisa: Gardentasun instituzionala, lan-baldintzak eta hitzarmen kolektiboekin bat datozen soldatak. Gipuzkoako Foru Aldundiak, bestalde, izaera sozialeko klausulak txertatu ditu 2020an egin diren lizitazio guztietan.
- Udal-jarduerari dagokionez, hainbat udalek adierazi dute kontratazio publikoko prozesuetan klausula sozialak sartu dituztela –zehazkiro, Barakaldok, Donostiak, Erandiok, Laudiok, Gasteiz eta Zarautzek–.

Bestetik, enplegu publikoko prozesuetan desgaitasunen bat duten pertsonak eta, bereziki, desgaitasun intelektuala eta/edo gaixotasun mentala duten pertsonak aukera berdinak izan ditzaten bermatzeko beharrezkoak diren egokitzapenak eta moldaketak egitera bideratutako jarduerak ondoko hauek izan dira:

- Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak 2019an kontratazio publikoko aholku-batzordearen urriaren 25eko 1/2019 Zirkularra onartu izana egiaztatu du: kontratu erreserbatuetara, laneratze-enpresetara eta gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezietara bideratua; beraz, jarduera hori ezarritzat jotzen da.
- Aldundiei dagokienez, Gipuzkoak artxiboko eta zerbitzu orokorretako hiru ofizial plaza (2018/15/EPO, 2019ko irailaren 9ko GAO) lortzeko hautaketa-prozesuaren deialdian 3 lanpostu gorde ditu adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat; 2020an egiten baitira hautaketa-probak. Arabaren kasuan, irekita dago Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura dauden funtzionarioen lanpostu publikoak eskaintzeko prozesua (820/2018 Erabakia, ALHAO, 2019/01/16); deitutako 77 plazetatik 5 desgaitasun orokorra duten pertsonentzat dira, eta 1, berriz, desgaitasun intelektuala dutenentzat.
- Udal-mailan, Gasteizko Udaleko Giza Baliabideen Sailak desgaitasun intelektuala eta bestelako desgaitasunak dituzten pertsonen beharretara egokitzen eta egokitzen ditu lanpostuak; Gizarte Politiketako Sailak, berriz, desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako praktika-plan profesionalak abian jartzen, enplegu-plan bereziak kontratatzen eta abarretan lagundu du. Sestaoko Udalak, bestalde, hautaketa-prozesuetan %33-tik gorako desgaitasuna duten pertsonentzako txanda mugatuak sartzen direla azaltzen du; era berean, hautaketa-prozesuaren deialdian oinarritan adierazten da Epaimahai Kalifikatzaileek ariketak egiteko denbora eta bitartekoak desgaitasunen bat duten izangaien beharretara egokitzen dituztela, gainerako parte-hartzaileekiko aukera-berdintasuna izan dezaten, betiere edukiari kalterik egin gabe.

6. jomuga. Emakumeen aktibazio- eta okupazio-tasa handitzea, kalitatezko enpleguetan parte-hartzearen bitartez

Emakumeen autonomia ekonomikoa bultzatzea, kalitatezko enpleguetan sar daitezen sustatuz.

6. jomugan Sestaoko Udalaren informazioa baino ez da jaso, zeinak jakinarazten baitu kontrataziorako laguntzen dirulaguntza bideratu duela eta eskabide guztiak -5 enpresatakoak - Ezetsi behar izan direla, ez baitu betetzen dirulaguntza arautzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2019ko maiatzaren 23ko Ebazpenean zehaztutako emakumeen %40 gutxieneko ehunekoa. Hori dela-eta, ebazpena jakinaraziko da, eta enpresa bakoitzari banaka deitu jakinarazteko. Emakumeak kontratatu izan balira, gizonak kontratatu beharrean, dirulaguntza jasotzeko aukera gehiago izango lituzketela, genero-ikuspegiaren gaineko kontzientziario handiagoa lortzeko.

Bestalde, 2019ko jarraipenean jakinarazi zen bezala, eta planean hasieran aurreikusi ez bazen ere, nabarmentzekoa da Emakundek eta Lan eta Justizia Sailak abian jarri dutela Euskadin soldata-arrakala murrizteko estrategia eta ekintza-plan operatiboa, zeinak zuzeneko eragina izango baitu jomuga honetan.

Beraz, 2020an garapen txikiena -edo informazio-txostenik gabea- izan duten jardueren artean, ondokoak nabarmentzen dira:

- Enplegurako pizgarrien egungo sistema sendotzea, DSBEren baitakoa dena.
- Laneratzeko laguntza osagarriak ematera bideratutako proiektu pilotuak garatzea, arreta berezia jarritz kontziliazioaren, haurren zaintzaren, garraioaren eta lanpostu batean sartzeko behar diren ordainketa ekonomikoen arloko premiei.
- Txanda-kontratuetan aurreikusitako hobariak handitzea, txanda-hartzaileak DSBE jasotzen duten pertsonak eta/edo iraupen luzeko langabeak direnean.
- DSBE arautzen duen araudian sartzea Lanbidek lanerako edo lanerako berriazko alternatibak eskaintzeko konpromisoa, prestazioa etengabe jasotzeko denbora jakin bat gainditu aurretik.
- Diskriminazio positiboko irizpideak txertatzea, gure lan-merkatuarekin lotutako esparruetan generoari dagokionez dauden aldeak murrizten laguntzeko.

4.3. Diru-sarrereren Bermea

Diru-sarrerak Bermatzeko 2. Helburuak diru-sarrerak bermatzeko euskal eredia babestea eta hobetzea aurreikusten du, datozen urteetan zilegitasun soziala eta iraunkortasun ekonomikoa bermatuz. Horretarako, 4 jomuga zehatzen inguruko 10 jarduketa egitea aurreikusten da.

2020an, jomugetatik bik informazio esanguratsurik eman gabe jarraitzen dute, bata abiatutzat jotzen da eta bestea ezarritzat. Hori dela-eta, 2020an, 2. Helburua, Diru-sarrerak bermatzeari buruzkoa, hasieratzat jotzen da, eta logikoa da hori, kontuan hartuta haren jarduerak estuki lotuta daudela Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legearen erreformarekin, zeina egiteke baitago.

7. taula. Diru-sarrerak Bermatzeko 2. Helburuaren jomugen betearazpen-maila (2020)

2. Helburuaren jomugak. Diru-sarrereren bermea	Betearazpen-maila
7. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) sendotzea	Informaziorik gabe
8. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) bermatzea	Ezarrita
9. Estatuaren eskumeneko enplegu-politika pasiboen birdiseinua bultzatzea	Informaziorik gabe
10. Seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomikoen sistema hobetzea eta arrazionalizatzea	Hasitakoa

7. jomuga. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) sendotzea

DSBE sistema eguneratzea eta zuzentzea. Horretarako beharrezkoa izango da hautemandako disfuntzioak zuzentzea, prestazioaren diseinua gaurko testuinguru sozioekonomikora moldatzea, Euskadiko ongizate-eredu orokorraren barruan sistema normalizatzea, eta diru-sarrerak bermatzeko gure sistemari ebaluazioan eta ezagutzan oinarritutako berrikuntzak aplikatzea, Europar politika sozialen abangoardian mantentzea posible izan dadin.

COVID-19ren ondorioei aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzak bi jarduera aktibatu izana nabarmen daiteke:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren izapidetzea errazteko prozedura aldatzea Alarma Estatuak iraun bitartean –2020ko martxotik aurrera–; demanda guztiak automatikoki berritu ziren 2020ko irailaren 30era arte.
- Aparteko laguntzak ezartzea Aldi baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteetako (AEEE) eraginpeko langileentzat. AEEEtan dauden pertsona guztientzat Laguntza osagarriak dira, hileko 1.666 eurotik beherako oinarri arautzailea eta 20.000 euroko edo hortik beherako soldata gordina duten langile guztientzat. Zenbatekoa hileko 150 eurokoa izango da %50 baino gehiagoko lanaldia dutenentzat, eta hileko 100 eurokoa %50 baino gutxiagoko lanaldia dutenentzat. Lehen deialdian, AEEEtik eratorritako prestazioak osatu ziren 2020ko uztailaren 1etik irailaren 30era arte. Bigarren deialdia azaroaren 18an onartu zuten, eta 2021eko urtarrilaren 31ra arte luzatu dute. Aparteko laguntzen bigarren lerro bat profesional autonomoei zuzendu zaie, alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz haien jarduerak etenda geratu baitziren, 3.000 arteko dirulaguntzekin ordainketa bakarrean.

8. jomuga. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) bermatzea

Larrialdietarako laguntzen gaur egungo erregulazioa aldatzea, laguntza-sistema beharrian berrietara hobeto egokitzea errazteko.

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak adierazten duenez, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen esleipenak banatzeko irizpideen aukeren azterketa teknikoa hasi dela. Bestalde, COVID-19ren ondorioei aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzak GLLen zuzkidura 16 milioi eurotan handitu du 2020an, eta 43,5 milioira igo du.

Zenbait udalek Gizarte Larrialdietarako Laguntzen arloko jarduketan berri eman dute, gehienbat; eta Eusko Jaurlaritzaren partida ekonomikoa udal-partida batekin osatu dute, eskatutako GLL guztiei erantzun ahal izateko. Horrela, Barakaldoko Udalak handitu egin omen ditu 2020rako Gizarte Larrialdietarako Laguntzen gastua eta zenbatekoak, baita aplikatu beharreko irizpideak ere (2020ko maiatzaren 11ko 02665 Dekretua eta 2020ko urriaren 28ko 06912 Dekretua). Irungo Udalak, bestalde, elikagaiak banatzeko dispositibo bat aktibatu zuen pandemian, Gurutze Gorriko langile boluntarioen bitarteko; laguntza bereziak eman zitzaizkien zailtasun ekonomikoak eta eskolako jantokira joan ohi ziren familiei; era berean, oinarrizko premiei aurre egiteko laguntza-kontzeptu berriak sartu ziren, eta horiek kudeatzeko prozeduran aldaketak abiarazi, haien izapidetza arintze aldera. Leioan, Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako Udalaren dekretu propioa indarrean dago, zenbatekoen eta baldintzen aldaketa arautzen duena (442/19 Dekretua). Laudioko Udalean GLLak eta jasangarritasunerako laguntzak handitu egin dira, Elikagai Bankua programaren irizpideak aldatu egin dira behar handiena duten eta haien kargura adingabe gehien dituzten familiei laguntzeko, eta COVID-19 aparteko laguntzen plana aktibatu da, 150.000 euroekin; premia-egoeran dauden pertsona eta familientzat. Sestaoko Udalak jakinarazi duenez, GLLen eskaera handia dela-eta, orokorrean, murrizketak ezarri dira eta, beraz, ematen den gehieneko zenbatekoa gastu-kontzeptu bakoitzerako ezarritakoa baino txikiagoa dela, alokairu-gastuei aurre egiteko laguntzen eta ohiko etxebizitza erosteko hartutako maileguen interesak amortizatu eta ordaintzeko laguntzen kontzeptuetan izan ezik. Gasteizko Udalaren kasuan, pandemian sortutako beharrei erantzun ahal izateko, GLLetan egindako gastua aurreko urteetan baino 2 milioi euro handiagoa izan da.

9. jomuga. Estatuaren eskumeneko enplegu-politika pasiboan birdiseinua bultzatzea

Autonomia Erkidego osorako diru-sarrerak bermatzeko politika bakar, integral eta eraginkorra diseinatzea.

Ez da ia informaziorik jaso Estatuaren eskumeneko enplegu-politika pasiboak berriz diseinatzera bideratutako jomugaren esparruan egindako jardueri buruz. Hala ere, nabarmentzekoa da Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren arteko hitzarmena argitaratu zela 2020ko irailaren 8ko ebazpenaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan gutxieneko bizi-sarreraren prestazioaren kudeaketa administratiborako (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2020ko irailaren 17koa) eta luzapen-gehigarriko (BOE, 2020ko azaroaren 12koa).

10. jomuga. Seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomikoen sistema hobetzea eta arrazionalizatzea

Diru-sarrerak bermatzeko euskal politikaren ikuspegi familiarraren eta haurtzaroarekiko lagunkoiaren aplikazioan sakontzea, bereziki areagotuz haurren pobrezia eta bazterketa belaunaldi batetik bestera transmititzea borrokatzeko duen ahalmena.

Ardurapeko seme-alaben prestazioen sistema hobetzeari dagokionez, 121/2018 Dekretua onartu izana gogorarazi behar da, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzen duena (EHAA, 2020/08/06); bigarren seme-alabentzako hirugarren urte-sari bat gehitzeko.

Udal-mailan, Eibarreko Udalak esandakoaren arabera, berariazko dirulaguntza-lerro bat sortu da, adingabeek eskolaz kanpoko jarduera publikoetan parte hartzeko. Pandemiaren testuinguruan, Leioako Udalak dioenez, alde batetik, eskola-adineko adingabeak ardurapean dituzte eta Diru-sarrerak

Bermatzeko Errenta jasotzen duten familiei elikagaien laguntza-programa bat sortu du, ikastetxeak martxotik ekainera bitartean itxi dituztelako eskola-jantokirik izan ez duten familiei laguntzeko; bestalde, familia-unitate bakoitzeko 100 €-ko ekarpena egin du; bestetik, laguntza-programa bat sortu du eskola-adineko adingabeak dituzten elikagai-bankua banatzen duten familientzat, eta 100 euroko ekarpena egin du eskola-adineko oporretan dauden zentroetan.

Ondorioz, Diru-sarrerak Bermatzeko arloan garapen txikiena izan duten –edo informazio-txostenik gabe egon diren– jomuga eta jarduketaren artean, ondokoak nabarmentzen dira:

- DSBEren sistema eguneratzeko eta hobetzeko jarduerak, igarritako disfunzio batzuk zuzenduta.
- Autonomia Erkidego osorako diru-sarrerak bermatzeko politika bakar, integral eta eraginkorra diseinatzea.
- Seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomikoen sistema hobetzea eta arrazionalizatzea.

4.4. Gizarte Zerbitzuak

Gizarte Zerbitzuen 3. Helburuaren xedeak hauek dira: Gizarte Zerbitzuen Legearen garapena bultzatzea, euskal herritar guztiek Gizarte Zerbitzuetarako duten eskubide subjektiboa eraginkorra izan dadin; gizarte-zerbitzuen sistema Planean adierazitako printzipioetara egokitzen laguntzea kontzeptualki, eta gizarteratze-programa berriak bultzatzea, herritartasun aktiboa eta partaidetza soziala oinarri hartuta. Horretarako, 2 jomuga zehatzen inguruko 12 jarduketa egitea aurreikusten da.

2020an egindako jardueri esker egiaztatu ahal izan da 11. jomuga ezarri dela, eta 12. jomuga, berriz, hasitzat jotzen da; beraz, 3. Helburua, orokorrean, ezarritzat jotzen da.

8. taula. Gizarte Zerbitzuen helburuaren jomugen betearazpen-maila

Gizarte Zerbitzuen 3. Helburuaren jomugak	Betearazpen-maila
11. Gizarteratzeko zentro eta zerbitzuei dagokienez Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Zerbitzuen eta Prestazioen Zorroa garatzen aurrera egitea	Ezarrita
12. Gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen arloko garapen normatiboa burutzea	Hasita

11. jomuga. Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Zerbitzuen eta Prestazioen Zorroa garatzen aurrera egitea, gizarteratzeko zentro eta zerbitzuei dagokienean

Gizarte-bazterketaren eremuko arreta-sarea finkatzea eta proiektu esperimentalen hedapena sustatzea.

11. jomuga ezarritzat jotzen da, ia hamar jarduketa guztietan aurrerapausoak eman direla egiaztatu baita. Zehatzago, horietako zazpi hasitakotzat jotzen dira, eta bi ezarritzat; jomuga batean, ordea, bildutako informazioa ez da nahikoa eta, beraz, ez da hasitzat hartzen.

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak ondoko jarduerak nabarmendu ditu 2020ko ekitaldian:

- EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoa ebaluatzea (ixteko fasean dago) eta II. Plana egitea. Ebaluazioak agerian uzten duenez, sendotu egin da gizarteratzeko zentron eta zerbitzuen sarea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan, eta aurrera egin da haren hedapenean, nahiz eta sistema osatzen duten lau sareetatik ahulena izaten jarraitu (mendekotasuna, desgaitasuna, babesgabetasuna eta bazterketa).
- Pandemiaren testuinguruan, nabarmentzekoa da Inor Atzean Utzi Gabe funtsa jarri dela martxan, 10 milioi eurokoa, pandemiak baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonengan duen eraginari erantzuteko. Funtsak 8 programa antolatzen ditu: Guztion Artean (premia larriko produktuen eta gizarte-laguntzaren banaketa), ADI (konfinamenduaren aurreko laguntza psikologikoa), Aukerak Suspertzen (eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzua eta arrakala digitala), Azken Sarea Indartzen (GLLetara sartu ezin diren pertsonentzako oinarrizko premien estaldura), Betirako (konfinamenduan hildako senideak kaleratu ezin izan dituzten pertsonentzako laguntza psikologikoa), Aterpeak (konfinamenduan zehar etxerik gabeko pertsonentzat egokitutako babeslekuak), Lehen Urratsa (babeslekuetatik irteteen gizarte-laguntza duten ostatu-aukerak) eta Erdu (unitate mugikorren bidez gizarte-baliabideetan mendekotasunak dituzten pertsonen arreta ematea eta pandemian zehar online zerbitzuak).

Gizarte Zerbitzuen Maparen eta Gizarteratzeko Zerbitzu eta Prestazioen Zorroaren garapenaren esparruan, udalek 2020an egindako jarduerak ondokoak dira:

- Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzuei dagokienez (1.7), nabarmentzekoa da Barakaldoko Udalak Ezkerraldeko 13 plazaren funtzionamenduaren berri eman duela -7 plaza Barakaldoko udalerrirako-, nahiz eta, egia esan, 30 plazako edukiera duen zerbitzua ematen den, eta, batez beste, egunean 70 pertsona artatzen ari den Covid-19aren aurreko egoeran (Gizarte Zerbitzuen Mapan aurreikusitakoa baino 10 aldiz gehiago). Portugaleteko Udalak, bestalde, ABEGI mantentzen du, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua. Getxoko Udalak, Uribe Kostako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin egindako administrazio-hitzarmenaren bitartez, eta Hirugarren Sektoreko erakunde batekin hitzartuta, 10 lanposturekin mantendu du Eguneko Arreta Zerbitzua. Irungo Udalak Eguneko Arretarako Zubia Gizarteratze Zentroaren funtzionamenduari eutsi dio; COVID-19aren konfinamenduan, etxebizitza duten jantokiko erabiltzaileek janaria etxera eraman ahal izatea baimendu zen, eta ordutegia luzatu zen, konfinamenduak iraun zuen bitartean zentroa ez ixteko; era berean, nabarmentzekoa da Irungo eta Hondarribiako udalen arteko lankidetzaren bitartez, eskualdean baztertuta dauden pertsonen arreta emateko. Eibarreko Udalak jarraipena eman dio helduentzako gizarte- eta hezkuntza-programari, eta Leioako Udalak Bazterkeria eta Mendekotasun Arriskuan dauden Pertsonentzako Esku-hartze Sozioedukatibo eta Psikosozialeko Zerbitzuaren (SISPRED) inplementazioa nabarmendu du. Zerbitzuaren orduak luzatu ditu ekitaldi honetarako eta datorren ekitaldirako. Bestalde, Gasteizko Udalak Arabako lurralde historikoko gizarte-zerbitzuen maparen estaldura-helburuak eta egungo plazak betetzen ditu; gainera, pandemiak iraun bitartean, 24 orduko arreta bermatzeko baliabide guztiak birmoldatu ziren.
- Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zerbitzurako (1.8) aurreikusitako zuzkiduren garapena zehaztu da Ezkerraldean, 28 plazako zerbitzu batean (22 gizon eta 6 emakume). Joan den neguan, emakumeentzako 6/7 plaza gehiago gehitu zaizkie, guztira 35 plaza. Getxoko Udalak, bestalde, eutsi egin dio Uribe Kostako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin sinatutako administrazio-hitzarmenari, 19 plaza kudeatzeko. Hitzarmen hori Hirugarren Sektoreko erakunde batekin hitzartzen da. Irungo Udalak gaueko arretarako Zubia Gizarteratze Zentroaren funtzionamenduari eutsi dio; nabarmendu behar da COVID-19 konfinamenduan, aldi baterako egonaldiak 7 egunetik 14ra luzatu zirela; gainera, ordutegia luzatu egin zen, konfinamenduak iraun zuen bitartean zentroa ez ixteko, eta Martindozeneako

gazte-aterpetxe zaharra egokitu zen etxerik gabeko pertsonentzako plaza gehiago sortzeko. Irunek, gainera, esparru-kontratu bat du, hoteletan eta gizarte-larrialdietarako etxebizitzetan larrialdiko bizitokiak kudeatzeko. Portugaleteko Udalak, bestalde, larrialdiko ostatu-zerbitzua mantentzen du. Gasteizko Udalak Arabako lurralde historikoko gizarte-zerbitzuen mapako estaldura-helburuak betetzen ditu; 2020an espazio fisikoak hobetu dira –logeletako plazak gaitzea, emakumeentzako berariazko espazioa–, pandemia dela-eta arreta 24 ordura zabaldu eta baliabideak banatu dira.

- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzetarako (1.9.2) aurreikusitako zuzkidurak Gizarte Zerbitzuen eskualde guztietan garatzeari dagokionez, Donostiako Udalak Gizarteratzeko Gizarte Zerbitzuen mapa osatu du, 2020an ireki baitira falta ziren tutoretzapeko 5 etxebizitzak. Eibarreko Udalak, bestalde, gizarteratzeko etxebizitza dauka, eta Erandioko Udalak jakinarazi duenez, Leioako Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko asmoa du baztertuta dauden pertsonentzako etxebizitza bat eskuratzeko (udal-egoitzako plazak aldatzea). Getxoko Udalak esanean, laster tutoretzapeko etxebizitza bat –6 plaza– arautzea eta irekitzea aurreikusten da, baita beste etxebizitza bat alokatzeko urteko 12.000 euroko aurrekontu-zuzkidura bat ere. Portugaleteko Udalak gizarte-larrialdietarako harrera-etxea du. Ezkerraldea Eskualdearen kasuan, Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera, 25 plaza kalkulatu dira eskualderako, eta horietatik 12 Barakaldokoak izango lirateke. Udalak uste du soilik eta bere kabuz betetzen dela Maparen hasierako aurreikuspenaren azpitik (%42). Azkenik, Gasteizko Udalak Arabako Lurralde Historikoko gizarte-zerbitzuen maparen estaldura-helburuak betetzen ditu; hala ere, 2020. urtean tutoretzapeko 2 etxebizitza handitu dira eta tutoretzapeko etxebizitza-sare osoa kudeatzeko lizitazio-prozesua hasi da (120 plaza). Prozesu hori hainbat lankidetzak-hitzarmenen eta kontratu baten bitartez kudeatzen zen, programa zorroari buruzko Dekretura egokituz.
- Erakunde arteko lantalde tekniko bat sortzeari dagokionez, Zorroari buruzko Dekretua nahitaez eguneratze aldera, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zerbitzuen definizioan izandako aldaketak aztertuko dituen, Gasteizko Udalak bazterketaren esparruko baliabideak berriro definitzeko eta Zorroari buruzko Dekretura egokitzeko batzorde tekniko bat duela adierazi du.
- Azkenik, ekimen esperimentalen esparruan, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak Eskualdeko Plan Estrategikoak egiteko proiektua abian jarri dela jakinarazi du. Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere aldetik, honako jarduera esperimental hauek egin ditu: Eskakizun oso txikiko 5 etxebizitza irekitzea, "Habitat" proiektu esperimentalaren barruan, etxerik gabeko pertsonentzat; "elkarrekin Ekinez" proiektua garatzea Emausekin; parte-hartze eta hurbilketa instituzionalerako proiektua; bigarren-mailako arretako sarearen diagnostikoa, instrukzioa eta hizkuntza-politikako plana; bakardadeari eta bazterkerian dauden pertsonen buruzko azterlana (EHU, Telesgi, Caritas, Emaus); gizarte-bazterketari eta zahartzeari buruzko azterlana (Adinberri, Matia) eta, azkenik, gizarte-bazterketari eta osasun mentalari buruzko tesia (UPV/EHU). Portugaleteko Udalak 2020an kalean dauden pertsonak hurbiltzeko Aproximate programarekin jarraitu du, haien egoera ezagutzeko eta ABEGI Eguneko Arreta Zerbitzuei laguntzeko. Portugaleten ere, GaituzSport proiektuak desgaitasuna duten pertsonen jarduera fisiko sustatzen du, aukera-berdintasuna erraztuz. Leioako Udalak, bestalde, Habitat programarekiko lankidetzak nabarmendu du, baita zerbitzuaren esleipendun den elkarrekeriko eta Bizkaiko Foru Aldundiarekiko koordinazioa ere.

Foru-aldundiek 2020an egindako jardueri dagokienez, ondokoak nabarmendu behar dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiak 2019an sortutako laguntza-programa esperimental finkatu du 2020an, gizarte-bazterketako egoeran dauden eta, zailtasun pertsonalak direla-eta, zerbitzu-sarean sartzeko moduan ez dauden pertsonen arreta emateko. Osasun-larrialdian, programa hori hedatu da gizarte-bazterketako egoeran dauden eta etxerik ez duten edo indarrean

dauden konfinamendu-neurriak betetzeko egokia ez den pertsonentzat. Gainera, itxaron-zerrendan dauden pertsoneri ere zabaldu zaie programa.

Bestalde, aurretik zeuden baliabideak berrantolatzen aurrera egin da, arreta-eredura egokitzeko, baita gazteei arreta emateko programetan ere (18-23 urte). Programa berri guztiak 185/2015 Dekretuaren 2.2.3 fitxaren parametroaren arabera egituratu dira, hau da, eguneko zerbitzuetik, baina erabiltzaileekin esku hartzeko lurralde batean ezarritako erreferentziarako esparru fisiko gisa ulertuta; kasu jakin batzuetan, zerbitzu horiek egoitza-zerbitzu lagungarriak (2.4.5) eskatzen dituzte esku-hartzeari ekiteko testuinguru egituratua behar duten pertsonentzat. 2021ean amaituko da baliabideak berrantolatzeko eta sarea interbentzio-parametro berrietara egokitzeko prozesua.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak, gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzuen eremuan (2.2.3), 17 plaza ireki ditu, horietatik 7 Gipuzkoan eta mendebaldean, zehazkiro: Arrasateko eguneko zentroa (5 plaza), Irungo eguneko zentroa (10 plaza) eta Tolosako eguneko zentroa (+2).

Laguntzak dituzten etxebizitzetara dagokienez (2.4.5), Gipuzkoak 28 plaza ireki ditu, horietatik 16 Gipuzkoa-Mendebaldean: 4 plaza Astigarragan, 2 plaza Villabonan, 4 plaza Beasainen, 5 plaza Arrasaten eta 5 plaza Mendaron. Halaber, "Itxasetxea" zentro integrala ireki da Pasaian, 8 plazarekin. Bestalde, arretaren intentsitatea indartu egin da. Azkenik, beste 2 autonomia aldeztzen duten pisuak ireki dira indarkeriaren biktima diren emakumeentzat. Emantzipazioa prestatzeko baliabideei dagokienez (2.4.4), Gazteon Sarelan proiektua jarri da abian (16-23). 14 plaza ditu Haurren eta Gizarteratzearen Zerbitzuaren artean. Egoera kronifikatua dauden pertsonentzako egoitza-zentroyen (2.4.5.1) eta gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroyen (2.3.2) esparruan, Aldundiak 3 plaza ireki ditu Errenterian, 4 plaza gehitu dira Aterpe zentroan, 8 plaza izatetik 12 plaza izatera igaro dira, eta arretaren intentsitatea indartu da; azkenik, San Juan de Dios arreta integraleko zentro bat diseinatu da, zeina 20ean egongo bailitzateke, egoitza-arretan.

Kirol-jardueren esparruan, Aldundiak ondokoak nabarmendu ditu: jarduera fisikoari eta kirolari buruzko "Auzolab" proiektu pilotua, Kirol, Konexio Ezinezko eta Athlon Foru Zerbitzuarekin batera; Bizitegi eta Emausekin "Homeless Film Festival 2019" proiektua eta "zurekin sortu dugu Donostia" proiektua.

- Arabako Foru Aldundiak, bestalde, lankidetzeta-hitzarmenak mantendu ditu Caritas, Gao Lacho Drom eta Hiesaren aurkako Herritarren Batzordearekin (Nahikari programa), programa okupazionalak, lan-aurrekoak eta gizarte-arretako/laguntzako programak mantentzeko. Emantzipazioa prestatzeko baliabideei dagokienez (2.4.4), Aldundiak 2019ko emantzipazio-plaza berak mantentzen ditu, baita tutoretzapean eta/edo zaintzapean egon diren gazteei laguntzeko Aukera programa ere.
- Adingabeen kontseilua, etxeetan edo familia harreragileetan artatuak direnak. Era berean, eutsi egingo zaie tutoretza osteko laguntzei. Azkenik, programa esperimentalen esparruan, Aldundiak jakinarazi duenez, Oinez Zerbitzuarekin jarraituko du. Landa-ingurunean garapen pertsonaleko, okupazionalako, lan-aurreko eta murgiltze komunitarioko jarduerak, zeina Europako Gizarte Funtzak kofinantzatzen baitu eta Covid-19ren baldintzetara egokitu baita.

12. Gizarteratzeko Gizarte Zerbitzuen arloko garapen normatiboa burutzea

Gizarteratzeko gizarte-zerbitzuekin lotutako zerbitzu, zentro eta programen funtzionamenduari lotutako alderdi guztiak arautzea, interbentziorako eredu komun bat izateko eta zerbitzuen funtzioak, ezaugarriak eta edukiak argitzea.

12. jomuga, bi jarduketa barne hartzen dituena, hasitzat jotzen da. Alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak barne-erregimeneko araudia ezarri du gizarteratze-zentro guztientzat. Halaber,

gazteentzako diagnostiko espezializatu bat garatu, baliozkotu eta ezarri da, Gazte Estrategiaren esparruan. Azkenik, "ostatu" prestazio osagarria garatzen jarraitzen da, *Housing led* filosofiaren pean bizitza autonomoari laguntzeko programa baten bitartez. Programa horrek *Housing first* metodologia indartzea barne hartzen du. 2021ean, gizarte-bazterketako egoeran dauden erabiltzaileekin esku hartzen dutenen prestakuntza- eta kualifikazio-jarduerak garatuko dira, arreta-ereduarekin bat egite aldera. Bestalde, jarraipena eta ebaluazioa baloratzeko tresna komunak egiteko prozedurarekin jarraituko da; hala, esku hartzeko (balorazio eta diagnostiko espezializatuarekin lerrokatuta) eta jarraipena ebaluatzeko tresnak izatea aurreikusten da.

Bestalde, 2020. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak bazterketa arin, moderatu edo larriko egoeran dauden pertsonen zuzendutako zentroak eta zerbitzuak kokatu eta egokitu ditu, Zorroari buruzko Dekretua osatzen dutenak; eta hitzarmenak programa-kontratueta egokitu.

Laburbilduz, egindako aurrerapenak gorabehera, komenigarria dirudi ondokoak indartzea:

- Eskualde guztietan garatzen jarraitzea eguneko arreta-zerbitzuaren Mapan aurreikusitako zuzkidurak (1.7), gaueko harrerakoak (1.8 eta 2.3.2), tutoretzapeko etxebizitzak (1.9.2), emantzipazioa prestatzeko baliabideak (2.4.4), gizarte-bazterkerian (2.4.5) egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako laguntzak (2.4.5) eta egoitza-zentroak dituzten etxebizitzak (2.4.5.1).
- Erakunde arteko lantalde tekniko baten lana sustatzea, 2019rako aurreikusitako Zorroari buruzko Dekretua nahitaez eguneratze aldera, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zerbitzuen definizioan izandako aldaketak azter ditzan.
- Esperimentalki, harreman-ingurune inklusiboak bultzatzeko ekimenak garatzea EAEko gutxienez zortzi eskualdetan, batez ere pobrezia-egoerek gehien kaltetutako eskualdeetan.
- Kulturaren eta kirolaren bitartez gizarteratze-programa pilotuak esperimentatzea.
- Orokorrean, gizarteratzeko gizarte-zerbitzuekin lotutako zerbitzuen funtzionamenduarekin lotutako alderdien erregulazioan aurrera egitea.

4.5. Osasuna

Osasunaren helburuak 6 jomugen inguruan egituratutako 28 jarduera egitea aurreikusten du. Horien bitartez, gizarte-egoera kalteberan dauden biztanleek ohitura osasungarriak har ditzaten sustatu nahi da, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen osasun-zerbitzuetarako sarbidea hobetu nahi da eta osasun-arloko desberdintasun sozialak murriztu nahi dira.

2020an egindako jardueri esker, egiaztatu ahal izan da jomugetako 2 ezarri direla eta beste bi abian jarri direla; bi jomugen inguruan, ordea, ez da informaziorik eman. Horregatik, 4. Helburua, orokorrean, ezarritzat jotzen da.

9. taula. Osasunaren helburuaren jomugen betearazpen-maila (2020)

Osasunaren 4. Helburuaren jomugak	Betearazpen-maila
14. Prebentzioa eta ohitura osasungarrien eskuratze edo mantentzea sustatzea	Hasitakoa
15. Baztertuta dauden edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen osasun-zerbitzuetarako sarbidea bermatzea	Hasitakoa
16. Genero-indarkeria osasun-esparrutik prebenitzea eta jorratzea	Ezarrita
17. Euskadiko osasun-sisteman osasun-desberdintasunak murriztea eta ekitatea indartzea	Informaziorik gabe
18. Osasun-desberdintasunen monitorizazioan aurrera egitea	Informaziorik gabe
19. Ekitatearen ikuspegitik, ahalik eta gehien murriztea adikzio-substantzien kontsumoa eta jokabide-adikzioak, eta, ondorioz, pertsonen eta haien familien osasunean eta komunitatean eta, orokorrean, biztanleengan dituen ondorioak.	Ezarrita

2020ko ekitaldian, batez ere Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren ardurapean, hainbat jarduera egin dira:

- Euskadiko osasun mentaleko sareek nahasmendu mental larriari buruz dituzten plan estrategikoei jarraipena eman zaie.
- Suizidioa prebenitzeko strategiaren esparruan, honako ekintza hauek jarri dira abian: jokabide suizidaren zaintza epidemiologikorako sistema bat sortzea; Osakidetzan suizidio-arriskuaren kodea ezartzea eta bizirik dirauten pertsonekin jardutea. Azpimarratu behar da Beti On zerbitzuak ere berariaz ematen diela arreta profil hori duten pertsonen.
- Gogoratu behar da, halaber, eutsi egiten zaiela finantzaketa publikoa behar duten Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzei, 247/2017 Dekretuak araututa (2017-11-17ko EHAA).
- Euskadin genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean osasun-arloko profesionalak jarduteko gida argitaratu da, eta, beraz, xedatutzat jotzen da genero-indarkeria osasun-esparrutik prebenitzeko eta lantzeko xedea.
- Prebentzioa sustatzeari eta ohitura osasungarriak hartzeari dagokionez, nabarmentzekoa da Euskadi lagunkoia esparru horretako ekintzak egiten dituela adinekoentzat.
- Azkenik, COVID-19k eragindako osasun-krisia dela-eta, Osasun Sailak abian jarri du COVID, "Lehen olatua" eta "Bigarren olatua, pandemiak eragindako nekea" gaixoei, senideei eta profesionalen laguntza emozionala emateko programa. Bestalde, Inor Atzean Utzi Gabe Funtzaren esparruan, arreta-programak aktibatu dira, hala nola ADI (Laguntza psikologikoa konfinamenduan), Betirako (Laguntza eta arreta psikologikoa Covid-19 egoeran dolutu-egoeretan) eta ERDU (Adikzioen hurbileko esku-hartzea).

Osasunaren sustapena sustatzeari eta substantzien eskaria murrizten eta adikziorik gabeko bizitza egiten lagunduko duten trebetasunak eskuratzeari dagokionez, baita adikzioek eragindako arriskuak eta kalteak minimizatzeari dagokionez ere, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak bi jarduera-ildo nagusi garatzen ditu:

- a) Arrisku edo kalteberatasun bereziko egoeran dauden pertsonen eta kolektiboen osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko programak egiten dituzten toki-erakundeei eta Hirugarren Sektorereko erakundeei zuzendutako laguntzen Agindua onartzea. Agindu horrek honako ekintza hauek diruz laguntzen ditu (EHAA, 2020ko ekainaren 15ekoa):
- familia adingabeak eta egoera arriskutsuan eta egoera bereziki kalteberan dauden pertsonak garaiz detektatzeko esku-hartze eraginkorrak indartzea;
 - arrisku edo kalteberatasun handieneko egoeran dauden kolektiboetara eta pertsonetara zuzendutako prebentzio-programak komunitate, eskola, familia, lan eta aisialdian;
 - bazterkeria-egoera larrian eta narriadura fisiko, psikiko eta sozial handia duten pertsonetara arreta integrala ematea sustatzen duten programak, arriskuak eta kalteak murriztea eta oinarrizko beharrak betetzea barne hartzen dutenak, neurri penalak dituzten drogazaleak barne, eta egoera horretan dauden emakumeekiko gaitzespen eta isolamendu sozial handiagoa kontuan hartuta.
- b) Hitzarmenak ezartzea bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonak artatzen dituzten kalteak murrizteko baliabideak kudeatzen dituzten elkarteekin, baldin eta, arreta integrala emateaz gain, laguntza ematen badute eta oinarrizko premiak betetzen badituzte:
- Bilboko Elizbarrutiko Caritas, Hontza Gaueko Laguntza Zentroa mantentzeko (2020an 146.130 €-ko aurrekontuarekin; 2019an 659 erabiltzaile artatu ziren - 532 G, 127 E);
 - Gizakia, Adikzioen Arretarako Zentro Soziosanitarioa mantentzeko ANDEN 1 (2020an 166.101 €-ko aurrekontuarekin; 2019an 378 erabiltzaile artatu ziren - 323 G, 55 E);
 - Bizkaiko Hiesaren Aurkako Herritarren Batzordea, drogazaleentzako eguneko zentroa mantentzeko (2020an 76.000 €-ko aurrekontua izan zuen; 442 erabiltzaile artatu ziren 2019an - 365 G, 77 E), Bilboko Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan.

Udalerriei dagokionez, nabarmentzekoa da EAEko zenbait udalek adikzioei buruzko tokiko planak dituztela, 2020an indarrean zeudenak, eta horien jarduerak ekitaldi honetan garatzen jarraitu direla. Sestaon, zehazki, 2020ko urtarrilean hasi zen Adikzioen Lehen Tokiko Plana diseinatzeko eta garatzeko kontratua ematen, eta 2022rako amaitzea aurreikusten da. Leioako Udalak, bere aldetik, zazpi hizkuntzatan egin eta zabaldu du Leioako Harrera Baliabideen Gida, eta bertan zehazten dira, besteak beste, osasun-baliabideak. Azkenik, Eibarreko Udalak genero indarkeriaren aurka eta arrisku arin edo ertaineko egoeran dauden adingabeen arretan jarduteko protokoloak ezarri direla jakinarazi du. Lurralde historikoei dagokionez, Arabako Foru Aldundiak Adikzioen 2017-2020 Foru Plana du. Biltzen dituen ekintzen artean, nabarmentzekoak dira adingabeei eragiten dieten arriskuak prebenitzeko familia-ahalduntzerako "Ferya-PrebenFamilia Araba" proiektua, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen, Gasteizko, Laudioko eta Amurrioko udalen eta AMPAS-GEKeko ordezkarien federazioen, zentro publikoetakoen (Denon Eskola) zein itunpekoen (FAPACNE) eta Europako Ikerketa Institutuaren lankidetzarekin inplementatua.

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak jakinarazi duenez, Emakunderekin lankidetzara teknikoari ekin zaiola indarkeria matxistarekin lotutako babesgabetasun-egoerak hautemateko eta baloratzeko.

Azkenik, osasunaren esparruan 2020an garapen txikiena izan duten –edo informazio-txostenik gabe egon diren– esku-hartzeen artean, honako jarduera-ildo hauek nabarmentzen dira:

- EAEko biztanleriaren osasun-arloko gizarte- eta genero-desberdintasunak murriztea, egoera ahulenean dauden taldeen egoera hobetuz.
- Osasuneko desberdintasunei buruzko monitorizazioa eta ikerketa sustatzea eta garatzea.

4.6. Etxebizitza

Etxebizitzaren helburuak gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen etxebizitza egoki bat eskuratzen laguntzea du helburu, etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatuz eta bizitegi-bazterketako egoerak prebenituz eta horiei aurre eginez. Horretarako, 3 jomuga zehatzen inguruko 17 jarduketa egitea aurreikusten da.

2020an egindako jarduerari esker, egiaztatu ahal izan da jomugetako 3 ezarri direla. Horregatik, 5. Helburua, orokorrean, ezarritzat jotzen da.

10. taula. Etxebizitzaren helburuaren jomugen betearazpen-maila (2020)

Etxebizitza 5. Helburuaren jomugak	Beteazpen-maila
20. Baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen etxebizitza duin, irisgarri eta egokirako sarbide egonkorra izango dutela bermatzea, edo, hala badagokio, alokairu-erregimeneko etxebizitza bat eskuratzea bermatuko duen prestazio ekonomikoa aitortzea.	Ezarrita
21. Bizitegi-bazterketako egoerak prebenitzeko eta bizitegi-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen etxebizitza independentea eskuratzeko aukera emango dieten tresnak ezartzea.	Ezarrita
22. Pobrezia energetikoari aurre egitea	Ezarrita

20. jomuga. Baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen etxebizitza duin, irisgarri eta egokirako sarbide egonkorra izango dutela bermatzea, edo, hala badagokio, alokairu-erregimeneko etxebizitza bat eskuratzea bermatuko duen prestazio ekonomikoa aitortzea

Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 2020ko ekitaldian egindako jardueraren berri eman du:

- 2020ko urtarrilean, 210/2019 Dekretua argitaratu da, kreditu-erakundearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzorua arloan, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzeari buruzkoa. Dekretu horren bitartez, babes publikoko etxebizitzaren egungo sistemari buruzko zenbait alderdi hobetu dira.
- Lanbiderekin negoziatzen ari dira etxebizitza duin bat lege eskuratzeko edo etxebizitzarako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubide subjektiboa arautuko duen Dekretua onartzean islatuko den akordio bat ezartzeko.

- Alokairu sozialeko etxebizitzaren parkeari dagokionez, jakinarazten da 2020ko hirugarren hiruhilekoan 57 etxebizitza berri daudela alokairuan (42 BOE eta 15 etxebizitza sozial), 278 ASAP etxebizitza (Alokairu segurua, Arrazoizko Prezioa) eta 6.224 etxebizitza Bizigune programan (etxebizitza hutsak atzemateko programa).
- Etxebizitza partekatuko programei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak baloratu du programak behera egin duela. Azpimarratzekoa da 2019an Gaztelagun programari ekin zitzaioela, eta programa horren alderdietako bat gazteen emantzipazioa etxebizitza partekatuetan sustatzea dela. 2020ko hirugarren hiruhilekora arte, etxebizitza partekatuen 596 eskaera aktibo daude guztira.
- Azkenik, Planean aurreikusitako "errenta bitartezko birgaikuntzako" programa pilotuak bultzatzeari dagokionez, baieztatu da, horien egokitasuna aztertu ondoren, 2019an ez garatzea erabaki zela, eta, beraz, baztertutako jardueratzat jotzen da.

Aipatzekoa da, halaber, 2020an, eta COVID-19ren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzak hainbat programa jarri dituela abian etxebizitzaren arloan:

- Krisiaren ondorioz egoera kalteberan dauden Euskadiko alokairu babestuko parke publikoko maizterrak aldi baterako salbustea onartu da alokairua ordaintzetik eta erkidegoko gastuetatik.
- Ezohiko laguntza-programa bat aktibatu da, denboran mugatuta, ondokoei berehalako bizileku-konponbidea emateko: genero-indarkeriaren biktimei, ohiko etxebizitzatik bota dituzten pertsoneri, etxerik gabe daudeneri eta bereziki zaurgarritzat jotako beste pertsona batzuei.
- Aldi berean, babes publikoko edo antzeko etxebizitza bat zuzenean esleitzeko ezohiko prozeduran sartu dira beren ohiko etxebizitzari dagokionez kaleratze judizial bat egiteko aukera ematen duten kalteberatasun bereziko errentariak.
- Azkenik, ezohiko laguntzak, laguntza osagarriak eta aldi baterakoak onartu dira "egoera ekonomiko kalteberan" dauden Gaztelagun laguntza-programaren onuradunentzat. Laguntza horiei esker, aitortutako dirulaguntza osatu ahal izango da, etxebizitzaren hileko errentaren mugetara iritsi arte, 2020ko apirilera, maiatzera eta ekainera hilekoetan.

Tokian-tokian, Barakaldoko Udalak babes publikoko udal-aloairuko etxebizitzak arautzen dituen udal-ordenantza (BOB 2015/05/04ko 82. artikulua). Bertan zehazten denez, udal-ondareko babes publikoko alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko, pertsonak bizitegi-bazterketako prozesuen eraginpean egon behar dute –etxerik gabeko pertsoneri buruzko Europako tipologiaren arabera (ETHOS)–. Sestaoko Udalak jakinarazi duenez, bestalde, udal etxebizitzaren parkea handitu dela eta egoera kalteberan dauden kolektiboari lehentasuna ematea aurreikusi dela etxebizitza horiek alokatzeko zozketan. Azkenik, Gasteizko Udalak prozedura bat sinatu du Gizarte Politiketako Sailaren eta Zabalgunea 21 udal sozietate publikoaren artean, etxebizitza galtzearen ondorioz egoera kalteberan dauden familiek alokairuko etxebizitzak eskuratzeko; gaur egun, programak 6 etxebizitza ditu eta etxebizitza berriak egokitzen ari dira parke hori handitzeko.

21. jomuga. Bizitegi-bazterketako egoerak prebenitzeko eta bizitegi-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri etxebizitza independentea eskuratzeko aukera emango dieten tresnak ezartzea

Bizitegi-bazterketa larriko egoerak prebenitzeko eta egoera horiei aurre egiteko Euskal Estrategia garatzea.

Pandemiaren testuinguruan eta Inor Atzean Utzi Gabe Funtsaren bitartez, etxerik gabeko pertsonen laguntzeko bi programa gaitu ziren: Aterpeak –konfinamenduak irauten duen bitartean etxerik gabeko pertsonentzat egokitutako babeslekuak– eta Lehen Urratsa –aterpeetatik irteteko babes soziala duten ostatu-aukerak–. Bi programen bitartez, erantzuna ematen ari zaien 1.000 pertsona baino gehiagoren ezagutzan sakontzen ari da, eta, ondorioz, eskainitako arreta-aukerak dibertsifikatu ahal izatea espero da. Programa horien esperientziak nahitaez ekarriko duela Etxerik Gabeko Pertsonen Euskal Estrategia eraldatzea aurreikusten da .

2020an, hainbat udalek bizitegi-bazterketako egoerak probenitzera orrirentzako jarduerak egin dituzte:

- Donostiako Udalak 100.000 euroko partida gaitu du ohiko prestazioak (EPO eta GLL) eskuratu ezin dituzten etxerik gabeko pertsonen etxebizitza-alokairuak ordaintzeko, eta 4 etxebizitza jarri ditu gizarte-erakunde baten esku, COVID bitartezko konfinamenduan irekitako harrera-zerbitzuak erabili zituzten pertsonen ostatu emateko.
- Laudioko Udalak koordinazioa indartu du Lehen-mailako Arreta Unitatearekin eta Osasun Mentaleko Zentroarekin, oinezkoen, etxerik gabekoen eta gizarte-bazterketako egoeran daudenen eraginkortasun eta berehalakotasun handiagoz erantzuteko. Etxe bat ere prestatu dute etxegabetutako familia batentzat.
- Beste udal-erakunde batzuek bezala, Getxoko Udalak aldizkako ez diren udal-laguntza izaera sozialeko eta subsidiarioen eta urteroko deialdiaren berri eman du. Laguntza horietan, besteak beste, etxegabetzeak eta/edo etxebizitza eskuratzea saihesteko/arintzeko laguntzak jasotzen dira. Ildo horretan, Leioako Udalak etxebizitzarako gizarte-larrialdiko udal-laguntza batzuen berri eman du: alokairu-gastuak, fidantzak, hipoteka-kredituak, komunitatearen derramak, konponketak, etxetresna elektrikoak, etab. Sestaoko Udalak, bestalde, laguntza ekonomikoak ematen ditu larrialdiko eta aldi baterako ostaturako, bai erosteko mailegua ez ordaintzeagatik etxegabetu diren etxebizitzaren jabeentzat, bai dagokion errenta ez ordaintzeagatik etxegabetu diren errentarientzat.
- Azkenik, aipatu behar da 3 Foru Aldundiek eta 19 udalek parte hartu dutela Kaleko Etxerik Gabeko Pertsonen V. Zenbaketan. Aurten maiatzera aurreratu zen, salbuespen gisa, eta COVID-19ko osasun-krisiak eragindako konfinamenduaren ondorio. Zehazkiro, Amurrioko, Arrasateko, Barakaldoko, Beasaingo, Bilboko, Donostiako, Eibarreko, Errenteriako, Galdakaoko, Getxoko, Irungo, Leioako, Laudioko, Oiartzungo, Pasaiaiko, Portugaleteko, Sestaoko, Tolosako eta Gasteizko udalek hartu zuten parte zenbaketan, bai kalean, bai zentroetan.

Jabetzako etxebizitzak nahiz alokairuko etxegabetzeak –sustapen publikoak edo jabetza pribatukoak– prebentzioari dagokionez, 2020an ondokoa nabarmendu behar da:

- 2020ko urtarrilean 210/2019 Dekretua argitaratu da, kreditu-erakundearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzorua arloan, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzeari buruzkoa. Dekretuak zuzeneko esleipenentarako xedatutakoa aldatu du, eta hipoteka betearazteko prozedura baten ondorioz edo errentak ez ordaintzearen ondorioz etxegabetze batek bereziki kaltetutako pertsonak edo familia-unitateak sartu ditu salbuespenezko neurri horren onuradun izan daitezkeen kolektiboen artean. Zuzeneko 137 esleipen egin dira 2020ko 3. hiru hilekoan.
- Gainera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak proiektu bat abiarazi du abokatuen elkargoekin, oinarriko gizarte-zerbitzuei eta etxegabetze-prozedura judiziala hasteko arriskuan dauden familia-unitateei zuzendutako orientazio-zerbitzu bat ezartzeko. Hala ere, Justizia Sailburuordetza oso aurreratuta dagoen proiektu bat lantzen ari da, bitartekaritza hori barne hartzen duena, eta, beraz, plan espezifiko honen edukia birplanteatzen ari da.

